

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y  
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO  
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN  
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak erosketa publikoaren eredu berri bat bultzatu du berrikuntza enpresetan sustatzeko

*Foru Administrazioa enpresa hornitzaileekin harremanetan jarri da Kontratazio Batzordearen oniritzia jaso ondoren*

Viernes, 24 de agosto de 2012

Nafarroako Gobernuak Foru Administrazioako enpresa hornitzaileekin harremanetan jarraitzen du [Erosketa Publiko Berritzailea](#) izenekoari bultzada emateko. Erosketa publiko hori etorkizunean erabilera izan dezaketen produktuak edo zerbitzuak kontratatzean oinarritzen da, enpresa lizitatuak arrazoizko denbora batean gara ditzaketenak ikerketa eta garapeneko prozesuak (I+G) abian jarritz.

Erosketa Publiko Berritzaileak (CPI) erosketa publikoen helburu orokorrei eusten die (kostuak aurrezte eta herritarrentzako zerbitzuaren hobekuntza), baina aldagai berri bat eranstean du lizitazioetan lehiatzen duten enpresa-sektoreetan garatu behar den I+G baloratzean; horrek enpresa-sarearen eta enpleguaren kalitateari eragiten die.

Bi CPI modalitate daude: alde batetik, teknologia berritzailearena (CPTI) eta, haren bidez, Administrazioak azken produktu edo zerbitzu baten eskuratzea kontratatzen du, eta hura garatzeko beharrezkoa da ikerketa eta garapeneko prozesuak aplikatzea; bestetik, merkataritza aurreko erosketa publikoa (CPP) eta, haren bidez, I+Geko zerbitzuak kontratatzen dira eta bertan ez dira azken emaitzak erreserbatzen Administrazioak bakarrik erabil ditzan, baizik eta irtenbide berritzaileen arrisku eta irabaziak produktua edo zerbitzua garatzen duten enprekin partekatzen da.

Erosketa Publikoko prozesuetan lehiatzen duten enpresek [Garapen Teknologiko Industrialerako Zentroak Innoeskaria zerbitzua](#) izeneko finantzaketa-tresna baten bidez abian jarritako berariazko laguntzak jaso ditzakete. Zentro hori Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren mende dago.

Enpresa eta Berrikuntzako Zuzendaritza Nagusiak Kontratazio Batzordearen oniritzia lortu du jada formula hori Nafarroako Gobernuak hornikuntzetan ezartzeko eta, une honetan, eredu aurkezten ari da beste batzuei produktuak edo zerbitzuak kontratatzen dizkieten Foru Administrazioako departamentuetan eta baita enpresa hornitzaileetan ere. Laster batean interesdun guztientzat zabalik izango den informazio-jardunaldi bat egitea aurreikusten da.